



## Erabili gure Arduino laborategiak online!

Arduino SYS-STEM for Schools europar proiektuaren helburua honako hau da: elektronikaren eta teknologia digitalaren alorrean erabiltzeko prest dauden kalitatezko material didaktikoak eskaintzea 14 eta 18 urte bitarteko ikasleen irakasleei, horien bidez erronka praktikoak egin ahal izateko, online, Arduinoren laborategi errealean. SYS-STEM proiektuak irisgarritasun handiagoa emango dio hezkuntzari, eta STEM hezkuntza garatzeko laguntza eskainiko die bigarren hezkuntzako ikastetxeei eta irakasleei. Zehazki, material didaktikoaren modulua SYS-STEM metodologia deitzen da, eta elektronika eta programazioa Arduinorekin garatzeko prestakuntza-programa egituratu bat da.

Modulu bakoitzak barne hartzen ditu beharrezkoak diren elementu didaktikoak, tresnak eta plangintza didaktikorako jarraibideak, eta baita ikaskuntza-emaitzak eta Arduinoren ariketen adibideak ere, ikasleei zuzenduak.

“ArdLab Hub” plataformak 4 urruneko laborategitara iristea ahalbidetzen die ikasleei eta Arduino laborategirik ez duten ikastetxeei. Gainera, gida bat garatu dugu beste pertsona batzuek euren laborategi propioa muntatu ahal izaten dezaten eta gure HUBarekin lotu dezaten, etorkizunean laborategien konstelazio bat eratu ahal izateko. Proiektu hau hedatzeko, webgune bat sortu dugu (<https://sys-stem.eu/>). Hor aurkitu ahal izango duzue proiektuko lankidetzaren sarea osatzen duten bazkideei buruzko informazio guztia. Derion (Bizkaia) kokatutako Politeknika Ikastegia Txorierri da proiektuaren koordinatzailea, eta gainerako bazkideak honako hauek: Portugalgo Instituto Politecnico de Porto, Greziako Hellenic Mediterranean University, Kroaziako Elektrostrojarskaškola eta Greziako IDEC.+

Politeknika Ikastegia Txorierri  
Kepa Larrondo



Co-funded by the  
Erasmus+ Programme  
of the European Union